

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Loiuko Udala****Kirolarien bidaietarako eta dietetarako diru-laguntzak lehia-konkurrentzia bidez emateko deialdia, 2019-2020 denboraldia. BDNS (Identif.): 530479.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvencio-nes.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/530479>):

Kirolarien bidaietarako eta dietetarako diru-laguntzak lehia-konkurrentzia bidez emateko deialdia eta oinarri espezifikoak arautzen dituen ordenantza eta bertako Oinarri Arautzailetan (2018ko azaroaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 221. zenbakian argitaratutakoak) xedatutakoarekin bat etorriz, diru-laguntza horietarako deialdia onestea xedatzen da, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez

EBATZI DU:

LEHENENGOA: Kirolarien bidaietarako eta dietetarako dirulaguntzak lehia-konkurrentzia bidez emateko deialdia onartzea, oinarri hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa. — Erakunde onuradunen betebeharrak

Bidaietarako eta dietetarako laguntza horien onuradun izan ahalko da Loiuko udalerrian errolatuta dagoen edozein pertsona fisiko, baldin eta araudi aplikagarrian finkatutako betekizunez gain, honako hau ere betetzen badu:

— Diru-laguntzaren xede den lehiaketan parte hartu izana egiaztatzea.

Bigarrena. — Diru-laguntza ematearen helburua eta xedea

Diruz lagundu ahal izango dira Loiun errolatutako pertsonen EAetik kanpoko lehiaketa federatuen bidaiak eta dietek sortzen dizkieten gastuak finantzatzeko. Bidaia eta egonaldi horiek egin beharko dira deialdiaren aurreko urteko irailaren 1etik aurtengo abuztuaren 31 arte. Hori guztia, Loiuko kirolariengan kirol federatua sustatzeko xedez.

Diru-laguntzaren barnean bidaiak nahiz kirolaren egonaldiak sortutako gastuak sartuko dira.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kirolarien bidaietarako eta dietetarako diru-laguntzak lehia-konkurrentzia bidez emateko deialdia eta oinarri espezifikoak arautzen dituen ordenantza eta Oinarri Arautzaileak, 2018ko azaroaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 221. zenbakian argitaratutakoak.

Laugarrena. — Zenbatekoa

— Zenbatekoa: 1.500,00 euro.

— Aurrekontuko partida: 3410-489.00.

Bosgarrena. — Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskaerak Loiuko udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira, Herriko Plaza, 1, 48180-Loiu (asteleheneetik ostiralera, 08:30etik 13:30era).

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala aipatutako erregistroaren bulegoan hartu ahal izango dira, eta era berean, eskuragarri egongo da udal webgunean: www.loiu.eus

Diru-laguntza eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdiaren estraktua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Seigarrena.— Deialdiaren publikazioa

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Argitalpen hori Diru-laguntzen Datu Base Nazionalaren bidez egingo da.

BIGARRENA: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Argitalpen hori Diru-laguntzen Datu Base Nazionalaren bidez egingo da.

Loiun, 2020ko urriaren 28an.— Alkatea, Josu Andoni Begoña Fdez. de Arroiabe